733

11/2007 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena Hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautu duen Dekretua aldatzen duena.

Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak honako hau arautu du: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere 32.3 artikuluan zehaztu duenez, haur-heziketako ikastetxeetan, sei gela baino gutxiagoko lehen mailako hezkuntzakoetan, hainbat udalerriren hezkuntza-beharrizanei erantzuten dieten ikastetxeetan, helduentzako heziketarako eta heziketa berezikoetan, bai eta ezaugarri bereziak dituzten gela edo ikastetxeetan, hezkuntza-administrazioak ikastetxe horien berezitasunari egokituko dio artikulu horretan zehaztutakoa, Ordezkaritza Organo Gorenaren osaera arautu baitu artikulu horrek.

Hezkuntza bereziko zentroetan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan, komenigarri da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta egiten dieten hezkuntza-arreta osagarriko langileek berariazko ordezkaritza izatea, irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienetik bereiz.

Beste alde batetik, otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere 32.4 artikuluan eman dio Jaurlaritzari ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren arlo guztietako ordezkariak hautatzeko prozedura arautzeko ahalmena.

Ildo horretatik, egoki iritzi zaio ikastetxean ordezkaritza handiena duen ikasleen guraso-elkarteak hezkuntza-sektore horretako ordezkari bat izendatu dezala ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenerako. Beraz, izendapen hori egiteko prozedura ere finkatu da.

Beste alde batetik, hezkuntza-sektore guztien partaidetza errazteko Ordezkaritza Organo Gorenetako kideen hautatze-prozesuetan, komeni da botoa ordezkatzeko edo botoa postaz emateko bideak ezartzeko aukera aurreikustea, beharrezkotzat jotzen den hauteskunde-prozesuetarako eta hezkuntza-sektoreetarako.

Adierazitako arrazoiak direla eta, beharrezko da azaroaren 12ko 258/1996 Dekretua zati batean aldatzea.

733

DECRETO 11/2007, de 30 de enero, de modificación del Decreto por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El apartado 3 del artículo 32 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, determina que en los centros de Educación Infantil, en los de Educación Primaria con menos de seis unidades, en los que atiendan necesidades educativas de diversos municipios, en las unidades o centros de educación de las personas adultas y de educación especial, así como en aquellas unidades o centros de características singulares, la Administración Educativa adaptará lo dispuesto en el citado artículo, que regula la composición del Órgano Máximo de Representación, a la singularidad de esos centros.

En los centros de educación especial y en aquéllos que cuentan con unidades de educación especial resulta conveniente que el personal de atención educativa complementaria que atiende al alumnado con necesidades educativas especiales disponga de una representación específica, independiente de la que corresponde al profesorado y al personal de administración y servicios.

Por otra parte, el apartado 4 del artículo 32 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, concede al Gobierno la potestad de regular el procedimiento de elección de los representantes de los distintos sectores en el Órgano Máximo de Representación del centro.

En este sentido, se considera adecuado establecer que la Asociación de Padres y Madres de alumnos más representativa del centro designe a uno de los representantes de este sector educativo en el Órgano Máximo de representación del centro, y fijar el procedimiento para efectuar esta designación.

Por otra parte, con objeto de favorecer la participación de todos los sectores educativos en los procesos de elección de los miembros de los Órganos Máximos de Representación de los centros, resulta conveniente prever la posibilidad de establecer mecanismos de delegación de voto o de voto por correo en aquellos procesos electorales y para aquellos sectores educativos en los que se considere necesario.

Por los motivos expresados se hace necesario modificar parcialmente el Decreto 258/1996, de 12 de noviembre.

Horiek horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 30eko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ezunibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren 3. artikulua:

«3. artikulua.– 1.– Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketa ikastetxe bakoitzeko antolamenduko eta jarduerako araudiak zehaztuko du, indarrean dagoen legeria errespetatuz.

2.– Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan, ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko kide izango da, halaber, hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat.

3.– Antolamenduko eta jarduerako araudia onartu gabe duten ikastetxeen kasuan, Hezkuntza sailburuordearen erabakiak zehaztuko du Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketa.»

***Bigarren artikulua.***– Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ezunibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren 18. artikulua:

«18. artikulua.– Zuzeneko eta isilpeko sufragioz egingo dira botazioak. Hezkuntza-sektore guztiek ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenetako kideak hautatzeko prozesuetan parte hartzea errazte aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bide egokiak ezarri ahal izango ditu botoa ordezkatzeko edo botoa postaz emateko.»

***Hirugarren artikulua.***– Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ezunibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren 22. artikulua:

«22. artikulua.– Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko uni-

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día 30 de enero de 2007,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– El artículo 3 del Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 3.– 1.– La composición del Órgano Máximo de Representación de cada centro será la que determine su propio Reglamento de Organización y Funcionamiento, respetando lo establecido en la legislación vigente.

2.– En los centros específicos de Educación Especial y en aquellos que tengan unidades de educación especial formará también parte del Órgano Máximo de Representación del centro un representante del personal de atención educativa complementaria.

3.– La composición del Órgano Máximo de Representación de los centros que no tengan aprobado su Reglamento de Organización y Funcionamiento será fijada por Resolución del Viceconsejero de Educación.»

***Artículo segundo.***– El artículo 18 del Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 18.– Las votaciones se efectuarán mediante sufragio directo y secreto. Con objeto de favorecer la participación de todos los sectores educativos en los procesos de elección de los miembros de los Órganos Máximos de Representación de los centros, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá establecer los oportunos mecanismos de delegación de voto y de voto por correo.»

***Artículo tercero.***– El artículo 22 del Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactado de la forma siguiente:

«Artículo 22.– En los centros específicos de Educación Especial y en aquellos que tengan uni-

tateak dituztenetan, Ordezkaritza Organo Gorenerako irakasleriaren ordezkariak aukeratzerakoan, ikasle horiekiko ardura pertsonalizatua betetzen duten ikastetxeari atxikitako irakasleek hautesle eta hautagarri modura hartuko du parte, ez dira halakotzat hartuko, ordea, hezkuntza-arreta osagarriko langileak.»

***Laugarren artikulua.***– Honela geratu da idatzita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren 11. sekzioa:

«11. SEKZIOA

IKASTETXEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ETA HEZKUNTZA ARRETA OSAGARRIKO LANGILEEN ORDEZKARIAK HAUTATZEA

34. artikulua.– Lan-kontratuz edo administratiboki ikastetxeari zuzenki lotuta izanik, irakaskuntzaz edo hezkuntzaz bestelako zereginetan dihardutenak dira administrazio eta zerbitzuetako langileak. Kanpoan geratzen dira ikastetxearekiko lotura zerbitzuak emateko enpresa baten bitartez eginda duten langileak

35. artikulua.– Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eta hezkuntza bereziko unitateak dituztenetan, honako hauek izango dira hezkuntza-arreta osagarriko langileak: lan-kontratuz edo administratiboki ikastetxeari zuzenki lotuta izanik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin hezkuntza-arreta osagarriko zereginetan dihardutenak.

36. artikulua.– Sektore horietako bakoitzeko kideek beren ordezkariak izendatuko dituzte zuzendariak deituriko ekitaldietan, hauteskunde-batzordeak zehaztutako egunetan.

37. artikulua.– Sektore horietako bakoitzean, dagokion hauteskunde-ekitaldiaren egunean eratuko da hauteskunde-mahai bat, honako kide hauek izango dituena: ikastetxeko zuzendaria, mahaiburu izango dena; eta dagokion sektoreko bi kide, zozketaz aterata, eta horietako gazteena izango da idazkaria.

38. artikulua.– Ordezko kideak ere aukeratuko dira, eta ez batzuk ez besteak ez badira agertzen, honako hauek izango dira mahaikide: zuzendaria eta zozketaz ateratako bi irakasle, irakasleen ordezkarietarako hauteskunde-mahaiko kideez bestelakoak.»

dades de educación especial, en la elección de los representantes del profesorado en el Órgano Máximo de Representación, participará como elector y elegible el personal docente adscrito al centro para la atención de este alumnado, sin que por tal se entienda el personal de atención educativa complementaria.»

***Artículo cuarto.***– La Sección 11.ª del Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, queda redactada de la forma siguiente:

«SECCIÓN 11.ª

ELECCIÓN DE REPRESENTANTES DEL PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DEL CENTRO Y DEL PERSONAL DE ATENCIÓN EDUCATIVA COMPLEMENTARIA

Artículo 34.– Constituye el personal de administración y servicios el que se encuentre vinculado laboral o administrativamente al centro de un modo directo, y realice funciones distintas de las docentes o educativas. Queda excluido el personal cuya vinculación al centro se realice a través de una empresa de prestación de servicios.

Artículo 35.– En los centros de Educación Especial y en aquellos que tengan unidades de educación especial, el personal de atención educativa complementaria estará constituido por los trabajadores y trabajadoras que, vinculados laboral o administrativamente al centro de un modo directo, realicen funciones de atención educativa complementaria con el alumnado con necesidades educativas especiales.

Artículo 36.– Los miembros de cada uno de estos sectores procederán a elegir a sus representantes en sendos actos convocado por el Director o Directora en las fechas fijadas por la Junta Electoral.

Artículo 37.– En cada uno de estos sectores, el día de celebración del acto electoral correspondiente, se constituirá la mesa electoral que estará integrada por el Director o Directora del centro, que será quien la presida, y dos miembros del sector correspondiente elegidos por sorteo, el más joven de los cuales actuará como secretario.

Artículo 38.– Se elegirán así mismo vocales suplentes y si no compareciesen unos y otros, la mesa quedará constituida por el Director o Directora y dos profesores o profesoras elegidos por sorteo, distintos de los componentes de la mesa electoral para elección de los representantes del profesorado.»

***Bosgarren artikulua.–*** Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren xedapen gehigarria lehen xedapen gehigarri izatera pasatu da, eta honako xedapen gehigarri hau erantsi zaio Dekretuari:

«Bigarren xedapen gehigarria

1.– Ikastetxean ordezkaritza handiena duen guraso-elkarteak bere esku izango du izendatzea sektore horrek hautatu behar duen ikasleen gurasoen lehen ordezkaria. Horretarako, komunikazioa bidaliko dio ikastetxeko zuzendariari, hautagaiak aurkezteko epea hasi baino lehen, izendatutako ordezkariaren izena adieraziz. Izendapen hori egin ezean, hauteskunde-prozesu arruntean beteko da plaza hori.

2.– Ikasleen gurasoen hauteskunde-erroldan egongo da ordezkari hori. Lau urteko agintaldia izango du, hasiera batean behintzat, eta ikasleen gurasoen ordezkari hautatuen arrazoi berberak izango ditu kargua uzteko, eta gainera, izendatu zuen ikasleen guraso-elkartearen erabakiz ere kendu ahal izango dute kargutik.

3.– Ikasleen guraso-elkarteak izendaturiko ordezkariak kargua utziz gero bere agintaldia amaitu baino lehen, une horretan ikastetxean ordezkaritza handiena duen guraso-elkarteak ordezko bat izendatuko du. Bi hilabeteko epean izendapenik egin ezean, honako honek beteko du postu huts hori: egindako azken hauteskundeari dagokion guraso-ordezkaritzaren ordezkoen zerrendako lehenak.

Edonola ere, Dekretu honen 42. artikularen 5. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, berritze partziala burutzen den arte ordezkoa Ordezkaritza Organo Gorenaren kide izendatua izango da, ordezten duen pertsonaren agintealdiak zeukan iraupena edozein izanda ere.

4.– Ordezkaritza handieneko guraso-elkartetzat joko da ikastetxeko ikasleen guraso-kopuru handiena bazkidetuta duena.»

***Artículo quinto.–*** La Disposición Adicional del Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pasa a ser la Disposición Adicional Primera, y se añade al citado Decreto, la siguiente Disposición Adicional:

«Disposición Adicional Segunda

1.– La Asociación de Padres y Madres de alumnos que tenga la condición de más representativa en el centro, podrá designar al primero de los representantes de los padres y madres de alumnos que corresponda elegir a este sector, previa comunicación al Director o Directora del centro, formulada con anterioridad al inicio del plazo de presentación de candidaturas, en la que se indicará el nombre del representante designado. En caso de no producirse tal designación, su plaza será cubierta en el proceso electoral ordinario.

2.– Este representante habrá de estar incluido en el censo electoral de los padres y madres de alumnos. La duración de su mandato será, en principio, de cuatro años y cesará por las mismas causas que los representantes electos de los padres y madres de alumnos y, además, por decisión de la Asociación de Padres y Madres de alumnos que lo designó.

3.– En caso de cese del representante designado por la Asociación de Padres y Madres de Alumnos con anterioridad al vencimiento del plazo de duración de su mandato, la Asociación de Padres y Madres de alumnos que en ese momento tenga la condición de más representativa en el centro, procederá a la designación de un representante suplente. De no producirse la designación en el plazo de dos meses, la vacante será cubierta por el candidato que figure en primer lugar en la lista de suplentes de la representación de padres y madres correspondiente a la última elección efectuada.

En cualquier caso, tal y como se determina en el apartado 5 del artículo 42 de este Decreto, el suplente será nombrado miembro del Órgano Máximo de Representación del centro hasta que se produzca la nueva renovación parcial del mismo, independientemente del periodo de tiempo para el que estuviera nombrada la persona a la que sustituye.

4.– Tendrá la consideración de más representativa la Asociación de Padres y Madres de alumnos que afilie a un número mayor de padres y madres de los alumnos del centro.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de enero de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OSASUN SAILA

### 734

4/2007 EBAZPENA, urtarrilaren 9koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez agintzen da oposizioaldian zelarien kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetan onartutakoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea puntuazio ordenaren arabera. Aipatu kategoria mendeko langileen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetakoak izango dira.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1095/2006 Ebazpenaren, urriaren 4koaren, bidez egin zen zelarien kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetarako hautaketa proben deialdia. Aipatu kategoria mendeko langileen lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetakoak izango dira. Aipatutako Ebazpena 2006ko urriaren 24ko EHAAn, 203 zenbakikoan, argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Oinarri orokor horiek 2006ko urriaren 24ko EHAAn, 203 zenbakikoan, argitaratu ziren.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendari nagusiaren 2006ko azaroaren 30eko 259/2006 Ebazpenaren bidez onartu zen zelarien kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko ze-

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 734

RESOLUCIÓN 4/2007, de 9 de enero, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación de aprobados en la fase de oposición por orden de puntuación, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Celador del Grupo Profesional de Subalternos/Operarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 1095/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Celador del Grupo Profesional de Subalternos/Operarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante Resolución 259/2006, de 30 de noviembre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobó la relación definitiva de aspirantes admitidos y excluidos a las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal esta-